

euskara batuaz HURRENGO URRATSETARA BEHAR

Zalantzarik ez. Gaur euskaraz argitaratzen diren liburuak eta aldizkariak irakurri besterik ez da behar, hizkuntzaren batasunerako bidean tarte handi batez aurreratu garela erreparatzeko Aitzina goaz euskara izkiriaturaren mailan.

Noski: aurrerapen hau ez da eragozpenik eta istilurik gabe gertatzen ari. Dauden eztabaidek, ordea, ez gaituzten mendrenik ere kirkildu behar. Ongi doa eginkizuna helburuaren aldera, eta helburua, jakina denez hauze da: euskara batua euskaldunen zerbitzuko **TRESNA EGOKI** bihurtzea.

Oraindik ere denak ados ez direla bide, ez genuke denborarik batera galdu behar kontra ari diren azkeneko horietxek erakartzeko. Euskara batuaren kontra egoteak ez du bururik ez hankarik. Eta era berean, proposatu den Euskara batu "honen" kontra egoteak ere etorkizunik ez du; hautatu den batasun-bidea burubidez eta azterketaz hautatua izan baita. Beronen ordez, gainera, ezer funtsaturik ez da eskaintzen.

Atzera begiratzea, horretara, txorakeria litzateke denbora galtze hutsa. Aurrera begiratu behar dugu, beraz, deliberatuki, beldurrik gabe; eta aitzinago.

Zertan aurrera? Nola aurrera? Zein sailetatik has?

Helburu batzuk behintzat nabarmen iruditzen zaizkit:

1.- **IKASTOLA HIZTEGIA** (2000 hitz) gertu dagoela esan daiteke. Zuzen ala erdipurdi, bukatutzat eman daiteke Euskaltzaindiaren gidaritzapean burutu den lan sail hau. Hiztegia ezagutarazi behar da orain (**JAKIN** ek liburu bat prestatzen bide du honetaz); eta **ikasi eta erabili** ere egin behar dugu. Ez ikastoleta andereñoek bakarrik. Euskara Batua hartzen diren erabakiak denok behar ditugu bete, idazleok eta irakasleok batez ere. Hots, **ikasi** egin behar ditugu aurrenik.

2.- **ADITZ BATUA** osatu beharra dago. Jakina denez, **hika**-koa falta zaigu (eta **zuka**-koa ere bai, hortaz); baita **sintetikoak** ere: daude-dagoz, eta abar. Lan hau Euskaltzaindiak bultzatu behar luke, luzatu gabe, orain arte egin duen lan zaila osatuz.

3.- **HIZTEGIA**. Ikastola-hiztegia bukatu bezain laister, sailka edo nahi den bezala, beste mailatar pasa beharra dago: batez ere **GAURKOTASUNEZKO** hiztegiari dagokionez.

Hemen, halere, aitor bat egin behar da jator, eta sendabideetan ahalik eta azkarnik abiatu.

Euskara Batua, elkar adituz, hautatu eta pikatuz egin den hizkera bat denez gero (eta hau ez da inoren errua), **HOTZ** gertatzen da. Denok dakigu hori: askoz ere "**biziago**" da Bermeoko edo Hasparneko euskalkia, Euskara Batua baino.

Alde batetik, jakina, urteek eta erabilketak kenduko diote gaur duen gordin kutsu hori, gaurkoz falta duen "**kolore**" hori emanez. Gauza segurua da hau. Egon egin behar, beraz, hein batez.

Baina dagoenetik Euskara Batua biziagotzeko (edo **osatzeko**, hitz batez) behar diren lan-atal batzuk aski agirian soma bide daitezke.

1.- Adjetiboan urritasuna

Aski da Toribio Alzaga edo Urruzuno ira-

kurtzea, gaurko idazleen adjetibo-urritasuna erreparatzeko. Gaurko idazleek (eta gaurko andereñoek ere bai, itxura denez) erdarara jo behar bide dute adjetiboak emateko. Erdal "**desaprensivo, desobediente, desabrido, descarado, aplicado, tímido,**" eta abar, euskaratu ezinezkoak bide dira!

Bide beretik, jakina, "**zantarkeriak, interjezioak**" eta hitz "**gordinak**"... Erdaraz entzuten dira; eta irakurtzen ere bai, zenbait aldiriz. Orain dela 50 urte gertatzen ez zena.

Ahulezia berri hau moztutzeko, eta dagoenetik beretik moztutzen hasteko, adjetibolerokada on eta zehatz bat prestatu beharra dago; eta gero denok ikasten eta erabiltzen hastea. Hiztegi hau zientzi-sailetan gertatzen zaigunaz bestaldera ez da inondik inora asmaketa-lan bat, **BILAKETA-LAN** bat baizik. Ez da lan zaila, beraz: herriaren ahotan, eta idazleen liburuetan ikasi eta bildu beharra dago. Zergatik ez izendatuko Euskaltzaindiak honetarako batzorde berezi bat?

2.- Esaerak

Sail honetan gauza nabarmena da Euskara Batuaren txirotasuna. Ez da, izan, Batuarena, Batuaz baliatzen diren idazle askorena baizik. Halako "**prefabrikatu**". kutsua igartzeko bide zaio batzutan, herri xehearen atsotitzak eta esaera bitxiak gure erdal itsasoan suntsitu direlako. Herri-giharra hori gabe esperanto itxura har dezake Batuak.

Kapitulu honetan ere asmatu ez-baina **BILATU ETA IKASI** egin behar dugu denok, dagoen bibliografia ugaria ongi uxtiatuz.

3.- Fonetika-legeak

Sortzeko euskaldunak murriztu eta euskaldun berriak ugaltu ala, jatorrizko fonetika-joerak kamustu ala, gure herrikideen elebitasuna hedatu ala, erdal moldeak eta fonetika-isuriak kutsatzen ari zaizkigu.

Euskara Batua, bestalde, izkribuzko edozein hizkuntza bezala, normakoa da, eskematikoa, ortografiaren mutil.

Hau guztia dela-ta, **presa handikoa da**, ene ustez, Euskal Herriaren seguru izan diren **fonetika-lege batzuk** bederen finkatzea, azaltzea eta bete araztea. Irratiaren eta ikastoletan mesede ala kalte handia egin daiteke.

Adibide bakar bat emateko. "**Ez dakit**" idazkera, bai euskal fonetikaren arabera irakurtzerakotan, eta bai euskal fonetika ez den zerbaitek hautaketa bat egitera bultzatzen duelako, (gure "z" soinu-gabea delako) nabarmena dute nun-nahi. Euskara Batua "**dotoreki**" erabili nahi duten batzuek, berri, euskal fonetikaren kontra jokatu "d" esaten dute, aurreko "z" horretarako soinudun bilakaraziz!

Hain zuzen ere, euskal fonetikaren ahulezia hori ezagututa eta Axular, Azkue eta beste askoren bideari jarraitu nahiz, Euskara Batuari buruzko lehengo bilkuretan, Baionan alegia, orain dela 11 urte, "**eztakit**", "**etzekien**" eta antzekoak, idaztearen alde agertu ziren euskaltzale batzuk. Hauen irizpidea nagusitu ez zenez geroztik, Euskara Batuaren **OSAKIN GISA** euskal fonetika-oinarri hauek finkatu beharra dago azkar; eta **ESATEKO MOLDEAN** barrena abiatzen garelarik (honetan ere abiatu beharra baitago) Euskara idatzi hori horrela osatuz joan. Honek ere kutsatzen hasi zaizkion erdarakadak eta erdal joerak erauzten lagunduko baitu.

Fonetika-lege hauetan abiatu beharra, bestal-

de, txit beharrezkoa da; ezen izkribuzko euskaratik **ahozko** euskarara pasako bagara, euskara idatziaren batasuna ez baita aski.

Katalandengandik ikasi behar dugu alderdi honetatik, berdin egiteko; eta irlandatarrangandik ere bai, baina hauen bideak ez hartzeko. Hizkuntza mintzatua dugu helburu; alegia, euskara berriz Euskal Herriaren **EGUNEROKO MINTZAI**RA bilakatzea. Baturik ere, euskara idatzia ez da aski. Mintzairaren fonetika legeak prestatzen hasi beharra dago.

"**Por razones prácticas**", "**por respeto a los no euskaldunes**", "**pour que tout le monde comprenne**" eta abar, erderaz hitzegitea, imperialismoaren zantpa-lanari eustea besterik ez da **Euskal** Herriari gaude, eta garaia da da erdaldunek (eta ez guk) beren burua maingu atxemateko, eta euskaraz **benetan eta egunero** ikasteko **BEHAR GORRIA** senditzeko. "Beharra eragile handi" baita, gure arbasoek ziotenez. Antwerpen-en flamenkera edo Tarragonan katalanera ikasteko **BEHARRA** nabaitzen den bezalaxe, Donostian eta Baionan euskaraz jakiteko **BEHARRA** sendi arazi behar da. **BESTELA JAI DUGU!!**

Herriko hizkuntza, beraz, **GAURTXE** hasi behar da aldatzen; eta, jakina, erdaldunak batzutan minduz eta amorratuz aldatuko da. Ala ez da sekula aldatuko: garbiki mintza gaitzezen; beste biderik ez baitago. Fonetikaren mailan ere, hortaz, elkar aditza gurtz beharrezkoa eta presakoa da. Euskara batua **izkribuen** mailan bultzatzea ongi da. Baina hori bezain beharrezkoa dugu **MINTZAI**REN MAILAN, atsekabe gertatuz eta benetako "provo" gisa, **ERDARA BAZTER**TZEN HASTEA. Euskaraz **hitzegiten** jakiteko behar **GORRIA** sendi arazi behar dugu.

Nondik hasiko? Erantzuna ez da dudakoa: **ABERTZALE ORGANIZAZIO**ETATIK. Euskaraz ez dakiten abertzaleek **GALDUTA** ikusi behar dute beren burua erdara hutsez. Orain arte abertzale organizazioetan gertatu dena ebaki egin behar da. Euskaraz ez dakienak **EZ DU BALIO ABERTZALE BURUZAGI** IZATEKO; benetako minbizia baita bere inguruko guztientzako.

Bestela Irlandakoa gertatuko zaigu.

Hots, orain dela gutxi Mairtin O Cadhain gaelikerazko idazlea hil zen (artikulutxo bat idatzi nuen **Z. Argian** honi buruz). eta, hiltzean, hau idatzi dute Irlanda "**askatuan**" Dublingo bere lumakideek (ingelesez ari): "**Gaelikeraren ezagutzailleek diotenez, oso idazle ona zen**"... O Cadhain-en izkriburik gehienak argitara gaberik gelditu dira!

Zertarako ikas erazi hortaz eskoletan gaelikera? Nori dakioko pozgarri Aberriaren hizkera, azkenean, latinaren pare, tematsu batzuen hieroglifiko "**batu**" gertatzeko esperantza?

Irlandako abertzaleek ingelesez egiten zuten, "**por razones prácticas**"... Eta orain gaelikera lehenengo hizkuntza ofiziala, "**baturik**" ere, hor datza, liburuetan, eta inork irakurtzen eta entzuten ez dituen idazkera bitxitan.

Txillardegui